**ELA no asiste a la mesa sobre igualdad de Osakidetza ››** ELA se ha negado a aparentar que existe voluntad de mejorar la discriminación sobre las mujeres en Osakidetza. ELA puso como condición para participar en la negociación que Osakidetza tomase medidas inmediatamente para que las mujeres embarazadas y parturientas pudiesen ser contratadas, y no se ha dado ningún paso en ese sentido. En febrero, ELA hizo saber a Osakidetza que no existían condiciones para negociar el Plan de Igualdad si no se abordaba esta discriminación directa, y a pesar de sus promesas, no lo han hecho.

**Akordioa Artxandako tuneletan ››** ELA eta LAB sindikatuak Artxandako tuneletako langileen lan-hitzarmena berrizteko akordio batera iritsi dira. Akordio hau 13 lanuzte egun egin ondoren gertatu da, eta beste lanuzte batzuk hasi aurretik.

Akordioak mugarik gabeko ultraaktibitatea, 2014tik hona galdutako eros ahalmen guztia berreskuratzea, igande, jaiegun eta gauetako plusetan %50eko igoera eta 8 orduko lanaldi murrizketa jasotzen ditu, besteak beste.

**El convenio estatal reduce a la mitad los sueldos en el sector de colectividades ››** ELA y LAB han denunciado la decisión de CCOO, UGT y de la patronal de impugnar el Acuerdo Marco Sectorial de Hostelería firmado para la CAPV. Para las trabajadoras de Colectividades la aplicación del Convenio Estatal de Restauración supondría una reducción salarial del 50% (8.200 euros menos al año) y 50 horas más de trabajo. En opinión de ELA, el objetivo es "extender la miseria laboral".

Los sindicatos ELA y LAB van a llevar próximamente una campaña de información sobre las consecuencias de la aplicación del convenio estatal.

LEGEAREN BUELTAK
PAGINAS JURIDICAS

# Bizkaiko Erresidentziak, Bilboko Udala eta bilera zein manifestazio-eskubidea




› HAIMAR KORTABARRIA

**La Subdirección de Uso de Espacio Público y Distritos del Ayuntamiento de Bilbao no autorizó la acampada que ELA quería llevar a cabo en la Plaza del Arriaga alegando que "La instalación de los citados elementos en la Plaza del Arriaga se aparta de la consideración municipal de dicho espacio como lugar de disfrute de la ciudadanía de actividades lúdicas y artísticas, en condiciones de tranquilidad…".**

**Nos parece muy grave que una administración pública establezca que en determinados lugares públicos no se puede ejercer el derecho de reunión y manifestación. La calle debe ser reflejo de la sociedad y si en la sociedad hay conflictos la calle debe ser un lugar idóneo para hacerlos visibles.**

**No hay paz social en las Residencias de Bizkaia y ello es, en gran parte, por la actuación de las distintas administraciones: Gobierno Vasco, con servicios mínimos excesivos; Diputación foral, que tras decir que se trata de un conflicto entre trabajadores y empresas interpone un recurso solicitando la ampliación de los servicios mínimos; y Ayuntamiento de Bilbao ahora, estableciendo restricciones al ejercicio de derechos fundamentales.**

**Ekaineko bigarren asteburuan zehar –ekainaren 9, 10 eta 11n– kanpaldi arrakastatsua** burutu zuten Bizkaiko Erresidentzietako Sektorean lan-baldintzak hobetzeko borrokan diharduten langileek. Egitarau oparoa izan zuen ekintza hau Bilboko Arriaga Plazan burutu zen, langile hauen egoera jendarteari ezagutzera eman eta gatazka, ahal den neurrian, sozializatzeko asmoarekin.

Kanpaldia Arriaga Plazan burutu ahal izatea ez da, ordea, gauza erraza izan; bi aldiz baimena ukatu ostean, hirugarren saiakeran lortu zuen ELAk karpa ezarri eta kanpaldia aurrera eramateko baimena.

Afera hau ulertzeko bi elementu argi edukitzea ezinbestekoa da: alde batetik, ELAk burutu nahi zuen ekintza bilera eta manifestazio-eskubidearen baitan kokatzen da eta eskubide horren erregimen juridikoa ez da baimenarena, baizik eta komunikazioarena. Horren arabera, bilera eta manifestazio-eskubidea erabili nahi duenak ez dio inori baimenik eskatu behar, nahikoa baita eskubidea erabiliko duela jakinaraztea. Beste alde batetik, aurretik esandakoa horrela izanda ere, ELAk kasu honetan bere eskubidea erabiltzeko aukeratutako diseinuak, kaleko eremu baten erabilera pribatiboa ematen den heinean– karpa bat, kanpadenda…–, espazio publikoaren erabilera berezi edo inpropioa suposatzen du, Bilboko Udalaren Espazio Publikoari buruzko Ordenantzaren arabera. Eta hori gertatzen denean Udalak eskubidea erabiltzeko moduan aldaketak ezar ditzake –manifestaldien ibilbidean, kanpaldiak egiteko lekuetan… –, eskubidearen beraren erabilera ukatzerik ez badu ere.

**Hasierako asmoa kanpaldia maiatzaren 19, 20 eta 21eko asteburuan egitea zen.** Hala ere, asteburu horretan Arriagako Plaza inguruan beste ekitaldi biri baimenak emanak zizkiola erantzun zion Bilboko Udalak ELAri. Musikaldia 2017k Arriagako Plazan eszenatoki bi ezartzeko asmoa zuenez eta Triatloiak Bilboko Areatza aldean jendetza bildu zezakeela ikusita, ELAk bere kanpaldia aste bete atzeratzea erabaki zuen. Eta hala jakinarazi zien bai Ertzaintzari eta baita Udalari ere.

Arazoa, ordea, ez omen zen hura. Edo ez behintzat hura bakarrik. Udalak aurreko astean Arriagako Plazan bilera eta manifestazio-eskubideak erabiltzeko jarri zizkigun eragozpenak (Musikaldia eta Triatloia) desagertuta ere ez zigun Arriaga Plazan bilera eta manifestazio-eskubidea erabiltzeko baimenik eman. Eta bigarren saiakera honetan eman zitzaigun arrazoiak ez zuen asteburu horretan emango zen ikuskizun edo ekitaldirik aipatzen, ezta gutxiago ere. Udalaren arabera, ELAk Arriaga Plazan instalatu nahi zituen elementuak ez zetozen bat Udalak eremu horretarako pentsatuta duen erabilerarekin. Izan ere, Udalak espazio hori jarduera ludiko eta artistikoentzat erreserbatu nahi du, jendeak jarduera horietaz lasaitasunez disfrutatu dezan.

**Erabaki larria.** ELAren ustez, Administrazio batek bere herriko espazio publikoaren eremu batzuetan bilera eta manifestazio-eskubidea erabiltzea posible ez dela erabakitzea larria da oso. Kaleak inorenak badira jendearenak dira, euren zergez mantentzen baitira. Ez da zilegi funtsezko eskubideen erabilera interes politikoen arabera mugatzea eta horregatik, ELAk Bilboko Udalaren jarrera bai epaitegietan eta baita publikoki ere salatu ditu. Eta horren ostean, horren ondorioz esango nuke nik, egindako hirugarren saiakeran lortu zuen azkenean ELAk Arriagako Plazan kanpaldia burutzeko baimena.

Gizarteari bake soziala saltzeko bake soziala egon egin behar da, eta Bizkaiko erresidentzietan, tamalez, bake soziala ez da posible. Besteak beste, oso oldarkor dabiltzan administrazio publikoak tarteko direlako: gutxiengo behar luketen eta gehiegizko diren zerbitzuk ezartzen dituen Eusko Jaurlaritza; gatazka enpresa eta langileen artekoa dela esan ondoren gutxiengo zerbitzuak areagotzeko demanda sartzen duen Bizkaiko Foru Aldundia; eta bilera eta manifestazio-eskubidea erabiltzeko era honetako oztopoak jartzen dituen Bilboko Udala. Erabaki politikoak, denak ere. Politikaren erasoak jasaten dituenak ez ote du zilegi kritika politikoa egitea?

GIZARTE EREDUA
POLÍTICA SOCIAL

# RGI: más recortes y criminalización de perceptores




› JANIRE LANDALUZE

**Llevamos años denunciando que el actual modelo de prestaciones sociales existente en la CAPV es insuficiente** y que es necesario extender y mejorar su cobertura, los datos así los demuestran. Según la Encuesta de Pobreza y Desigualdades Sociales de 2016, de cada 10 personas en situación de pobreza real 3 quedan fuera del sistema de protección de la RGI. Es decir, la actual regulación de la RGI deja sin protección a una parte muy importante de las personas que están en situación de pobreza. Es mas, la RGI está situada en unas cantidades por debajo del umbral de la pobreza. Quienes acceden a la RGI no dejan de ser personas pobres. La RGI mitiga el nivel de pobreza, pero no deja de estar situada en unos niveles de protección más cercanos a la subsistencia que de garantizar unos ingresos que permitan llevar una vida digna.

La ley aprobada en 2008, que era insuficiente, no se está cumpliendo en lo referente a la cuantía de la RGI. Por un lado, desde 2012 se aplica un recorte del 7% (que se mantiene todos los años en la Ley de Presupuestos del Gobierno Vasco). Por otro, la cuantía de la RGI está establecida en la ley en función del SMI. Pues bien, en 2017 el presupuesto aprobado por el PNV, PSE y PP ha aplicado una subida de la cuantía de la RGI del 1,6%, en vez del 8% de incremento que ha tenido el SMI. De este modo, la cuantía de la RGI está sufriendo un recorte del 14% respecto a lo aprobado hace 9 años, agravando la situación de pobreza de las personas que están en peor situación en nuestra sociedad.

En abril de 2017 había 63.146 unidades convivenciales que percibían la RGI en la CAPV. Existe una importante heterogeneidad entre estas unidades. Así, del total de unidades perceptoras:

- 15.706 son pensionistas (que suponen el 25% del total).
- 12.321 tienen ingresos del trabajo (el 20% del total
- 17.009 son de personas inmigrantes (el 27% del total)
- 35.825 son solicitadas por mujeres (que suponen el 57% del total).

Las medidas que se proponen en el documento persiguen recortar y contener el gasto y siguen utilizando el pretexto del fraude como coartada a la criminalización y descrédito hacia las personas perceptoras.

## Las más destacadas, por su gravedad, son las siguientes:

- **La concesión de una sola RGI para todas las personas empadronadas en un mismo domicilio.**

Actualmente, en una misma vivienda puede haber dos unidades de convivencia que perciben la RGI. A falta de una mayor concreción, se trata de un claro recorte.

Aunque el propio informe reconoce que la realidad socioeconómica y la crisis han provocado cambios sociales importantes, como formas de convivencia más pequeñas e inestables, disolución de las formas tradicionales de relación, aumento de situaciones de necesidad, agrupación de dos o más generaciones de una misma familia en un mismo domicilio etc, lo cierto es que con la modificación se pretende penalizar a todo aquello que excede de un domicilio físico u hogar y que no suponga una forma de vida estable. Así, y siempre según el informe, se evitan unidades de convivencia de facto, o sea, no reales. Se dice que muchas UC se dividen artificialmente para, así, no computar los ingresos conjuntos de la unidad convivencial porque de computarse no daría lugar a la concesión de la RGI.

**Eusko Jaurlaritzak diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE) aldatzeko oinarrizko dokumentua ezagutzera eman zuen maiatzaren 31an. Eskubide Sozialen kartak ekainean zehar mobilizazio ezberdinak antolatu ditu murrizketak salatu eta babes sozialerako sistema publiko propioa aldarrikatzeko**

Por lo tanto, se entiende por extendida una supuesta práctica a nuestro entender residual (no se ofrece ningún dato objetivo que dé lugar a pensar lo contrario) frente a las verdaderas situaciones sociales de necesidad existentes. El 13% de los titulares residen en domicilios donde hay más de una RGI.

**Modificación de la cuantía básica de la prestación y de los complementos asociados.**

Se pretende fijar una cuantía base común para todas las unidades de convivencia y, a partir de ahí, establecer un sistema de complementos por cada persona adulta y por menores a cargo residentes en la vivienda.

Pues bien, el objetivo no es otro que recortar la cuantía. La cuantía de la renta garantizada que propone el Gobierno vasco es claramente inferior a la que se recoge en la ley de 2008. Así, para una persona sola la propuesta del Gobierno es que la RGI se sitúe en 650 euros, 76 menos que los 726,44 a los que equivale el 88% del SMI (que es lo que establece la ley de 2008).

Es más y peor. Por si todo esto fuese poco, se establece que “las cuantías máximas no se establecerán por un indicador externo, como pueden ser el SMI, el IPREM u otros, y su actualización no se vinculará a esos indicadores” y “ la cuantía máxima para cualquier composición familiar ascenderá a 1.200 ”. Es decir, todo dependerá de lo que se decida en los presupuestos de cada año, con el riesgo que ello supone.

**Modificación del período mínimo de empadronamiento en la CAPV.**

Se reduce de 3 años a 24 meses el período de empadronamiento mínimo exigido para acceder a la RGI, pero sólo en el caso de unidades familiares con hijos e hijas menores de edad a cargo. Medida positiva pero, a su vez, parcial, que discrimina al resto de perceptores y que entre sus motivaciones señala que se quiere así evitar llegadas artificiales exclusivamente motivadas al acceso de este tipo de ayudas, denuncia no fundada ni moti vada en ningún dato objetivo.

**Modificación en relación a las formas de certificación de la residencia efectiva en la CAPV.**

Actualmente para acceder a la prestación es obligatorio, además del empadronamiento, residir efectivamente en la CAPV.

Hasta ahora para acreditar la residencia efectiva se han empleado distintos mecanismos de control en colaboración con la administraciones locales, pero dado que “las sospechas de no residencia” persisten se propone añadir seis medidas de control más para los nuevos perceptores así como un sistema aleatorio de comprobación presencial para las personas que ya son perceptoras.

| N.º de personas por la UC | RGI 2017 Máximo euros/mes | Propuesta | Sin recortes |
|---|---|---|---|
| 1 | 634,97 | 650 | 726,44 |
| 2 | 815,36 | 810 | 932,88 |
| 3 | 901,94 | 930 | 1.031,87 |
| 4 | 901,94 | 1.014 | 1.031,87 |

Más control, mas criminalización y con un único objetivo, recortar en su caso el número de perceptores de la RGI.

**Modificaciones tendentes a la detección de usos de la RGI que pueden ser indicativos de irregularidades en la percepción de la prestación.**

Esto no es nuevo. Con esta medida se pretende fiscalizar el uso del dinero percibido en concepto de RGI. Al amparo de criterios totalmente subjetivos se da cobertura a una práctica abusiva por parte de la administración que entiende en cada caso y situación qué es adecuado y qué no.

**Gastua murriztu nahi dute eta iruzurraren mezu maltzurra zabaltzen dute DSB jasotzen duten pertsonak gutxietsi eta kriminalizatzeko**

**Modificaciones tendentes a la mejora y racionalización del sistema de estímulos al empleo, modificaciones para promover la implicación de la empresa ordinaria en la generación de oportunidades de empelo para personas perceptoras de la RGI y/o en situación de desempleo de larga duración, y las tendentes a la materialización del derecho a la inclusión laboral y a la generación de oportunidades de empleo a los perceptores con mayores dificultades de activación.**

La primera viene a modificar la RGI complementaria a las rentas de trabajo, tanto en su cuantía como en la eliminación del límite temporal de 3 años en el que se podía percibir. Del texto, concluimos que más que perseguir el estímulo del empleo y la búsqueda del empleo digno y de calidad, lo que se pretende es apostar por el empleo precario y a tiempo parcial, con la finalidad y apuesta política de reducir el gasto y así reducir el número de RGI generales por las complementarias de trabajo.

# GERO ETA OKERRAGO

**Gizarte-prestazio sistema egoki bat funtsezkoa da kohesio soziala izateko.** Prestazio sistema hau izango litzateke gizarteko sektorerik ahulenekiko konpromiso kolektiboaren zutabeetako bat, hauek gero eta zabalagoak direlarik. Kontua da gizarte-prestazioak urriegiak direla biztanleriaren beharrizanei aurre egiteko. Oraingoan ere botere politikoak erreforma proposamen honekin sistema hobetu beharrean bi gauza nahasten ditu: sistema goraipatzeko propaganda (hura hobetzeko aukera baztertuta) eta gastua kontrolatu eta laguntzak jasotzen dituztenei jazartzeko praxia.

Prestazioak murriztu egin dira azken aldian, eta datozen urteetan ere areago urrituko dituzte. Oraindik ere duina ez den zenbatekoak eta laguntza jaso ahal izateko eskakizunak zorrozteak, estaldurarik gabe uzten du gero eta kolektibo gehiago. Benetako pobrezian dagoen biztanleriaren %30,7ak ez du DSBErik jasotzen. Eta egoerak txarrera egingo du proposatutako erreformarekin.

Jasotzaileen indefentsioa erabatekoa da. Legearen interpretazio subjektiboak eta irizpideen etengabeko aldaketek ez daukate zerikusirik arauaren izpirituarekin. Betiko moduan, politika hauen ondorioak herritarrek pairatzen dituzte; areago, eurei leporatzen zaie egoeraren ardura, eta kriminalizatu ere egiten dituzte.

Ohikoa den legez, erreforma proposamen honetan ez da inolako parte hartze sozialik izan.

Ez zaie heltzen gizarte-prestazioen sistemak dituen gabeziei eta kudeaketa arazoei.

KRONIKA
DE LA A A LA Z




# En plena forma

› **GORKA QUEVEDO**

**El cargador, a tope.** ELA celebró los días 15 y 16 de junio su XIV Congreso Confederal. Una cita que ha servido para que el sindicato cargue las pilas. Falta hará. Los retos del futuro son muchos. La voz de alarma que sonaba en el Palacio Euskalduna antes del comienzo del Congreso lo dejaba bien claro. “Error del sistema. El sistema actual ha fracasado. El sistema es insostenible. Crea desigualdad, precariedad y pérdida de derechos sociales. Error del sistema. Iniciamos carga de sistema alternativo”.

Un mensaje que nos deja una conclusión clara. El actual sistema ha fracasado. Es obvio, no es necesaria ninguna explicación complementaria. Pero el error del sistema es tan profundo que ya es imposible arreglarlo, hace falta crear un sistema alternativo. No es un reto fácil, por supuesto, pero es un reto imprescindible si se pretende lograr un mundo más justo y sostenible.

**Todo es política.** El actual sistema es el resultado de decisiones políticas tomadas durante décadas. La desigualdad, la pobreza o las guerras no son fenómenos meteorológicos. Si este sistema es consecuencia de unas políticas concretas, para construir otro sistema mejor son necesarias otras políticas. Es otra cosa tan obvia que tampoco merece más explicación. Sin embargo, cuando alguien dice que todo es política y que, en este caso, el sindicalismo tiene que ser más político que nunca, aquellas personas –y sus voceros– que con sus decisiones políticas han contribuido a este sistema tan injusto se sobresaltan.

Cuentan que el dictador fascista Francisco Franco solía zanjar las discusiones con sus ministros con un consejo: “Haga como yo, no se meta en política”. De las muchas herencias vivas del franquismo ésta es una más: no se meta en política. Cada uno/a a lo suyo: las y los bomberos, a apagar el fuego; el profesorado, a dar clase; l@s albañiles, a la obra, y los sindicatos, a pedir migajas en el convenio. Y la política, para los políticos. Y, usted, como Franco: no se meta en política. Y si le parece mal la bancarización de las cajas de ahorro o que los ricos y el ca-

**Sistema hain dago ondatuta dagoeneko ezin dela konpondu, sistema berri bat behar da**

**'Egin ezazu ni bezala, ez zaitez politikan sartu', esaten zuen Francok. ELAri ere politikan ez sartzeko esaten diote**

pital no paguen impuestos pues ya sabe, cree un partido. Porque ya está bien de opinar de todo. Y de meterse en política...

**1 de octubre. ¿Cita con las urnas?** Ya hay fecha. 1 de octubre del 2017. Y pregunta. '¿Quiere que Catalunya sea un Estado independiente en forma de república?' El 1 de octubre, por lo tanto, la ciudadanía de Catalunya tiene una cita con las urnas. ¿O no? Es difícil, por no decir imposible, saber qué sucederá. Es evidente que el Gobierno Español va a hacer todo lo posible para impedir su celebración. ¿Hasta dónde está dispuesto a llegar el Estado Español para impedir el referéndum? ¿Hasta dónde está dispuesto a llegar el Govern de Catalunya para garantizar su celebración? ¿Cómo reaccionará la ciudadanía de Catalunya ante las medidas que tome el Estado? ¿Y la llamada comunidad internacional?

De la respuesta a estas preguntas dependerá lo que suceda el 1 de octubre. Y, tal vez, lo que es más importante: ¿qué sucederá el día 2? Son preguntas que, por ahora, no tienen respuesta. No es la primera vez que el Govern anuncia un referéndum sobre el futuro político de Catalunya. El 13 de diciembre del 2013 el entonces president de la Generalitat Artur Mas también anunció un referéndum que se celebraría el 9 de noviembre del 2014. Al final ese día no hubo ningún referéndum vinculante, pero sí un proceso participativo y de desobediencia en el que participaron más de 2,3 millones de personas.

Han pasado casi tres años desde aquella fecha, y el procés, tal y como lo conocemos hoy, ha llegado a un punto de no retorno. Nadie sabe lo que sucederá, pero a partir del 1 de octubre nada será igual. Termine como termine, estaremos ante un escenario diferente. No se sabe cuál, pero diferente. Por ahora nadie revela sus cartas. Como en las partidas de póker. Cualquier error de cálculo puede ser fatal. Pero lo que está claro es que la movilización de la sociedad de Catalunya será un elemento clave para saber cómo acaba este asunto.

**El problema es la soberanía.** "El problema de Catalunya con España no es de plurinacionalidad. En Catalunya tenemos plurinacionalidad para parar un tren. Después de la Guerra Civil éramos poco más de dos millones de personas; ahora somos más de 7,5 millones. ¡Y no penséis que en Catalunya se folla tanto! Ese crecimiento se dio, sobre todo, por la gente que vino a trabajar desde diferentes lugares; esa gente vino de diferentes naciones. El problema es la soberanía; España no está dispuesta a compartir ningún tipo de soberanía".

La cita es de Quim Arrufat, ex parlamentario de las CUP en el Parlament y actual secretariado nacional de esta organización. El párrafo está extraído de la charla que dio Arrufat en junio del 2016 en Gasteiz, dentro de los Cursos de Verano que organizó la Fundación Manu Robles-Arangiz. Una frase que, un año después, no solo no ha perdido actualidad sino que sirve perfectamente para resumir tanto la actual coyuntura de Catalunya como la polémica generada por la definición por parte del 39 Congreso Federal PSOE de la plurinacionalidad de España.

La Comisión de Marco Estratégico, Ponencia Política y Social del PSOE ha reconocido por primera vez "la plurinacionalidad del Estado", pero manteniendo que la soberanía reside "en el conjunto del pueblo español". Es decir, da igual que Catalunya (o Euskal Herria) sean denominadas naciones, nacionalidades, naciones culturales, naciones forales o como un@ desee denominarlas. Lo que importa es que esos territorios, más allá de su denominación orgánica, no tienen derecho a ser soberanos. O, al menos, a serlo sin el consentimiento de España.

**La (triste) realidad vasca.** Situación muy diferente a la catalana es la que sufrimos en Euskal Herria. La ponencia de autogobierno organizada por el Parlamento Vasco es un claro ejemplo de nuestra (triste) realidad. La Comunidad Autónoma del País Vasco ha dejado al lado la más mínima reivindicación nacional por la soberanía para convertirse en una Comunidad Autónoma más. Con sello vasco, tal vez, pero plegada a la voluntad y los designios de Madrid. Se comparten las políticas, los proyectos económicos y sociales, el modelo de sociedad. Y el nacional. Si en algún momento alguien se desvía un solo milímetro no pasa nada, toque de corneta y vuelta al redil. Y todo esto por cuatro euros, bien vía acuerdo sobre el Cupo –un acuerdo del que solo conocemos los titulares, no la letra pequeña– o bien como contrapartida –'desarrollo del Estatuto'– por aprobar los presupuestos del Estado. Un Estatuto, por cierto, que se parece bastante a un muerto viviente.

**Inbidia galanta ematen du Euskal Herritik Katalunia aldera begiratzeak**

**Urriaren lehen egunean Katalunia egoera berri batean sartuko da. Ez dakigu zer gertatuko den, baina etorkizunean gauzak ezberdinak izango dira**

Así está la CAPV hoy, sostén necesario de un Estado que le niega sus derechos como pueblo y gobernado por, posiblemente, el partido más corrupto de Europa –y muy de derechas, además de muy corrupto–. Ante esta situación de sumisión con el Estado hablar de bilateralidad es una broma de muy mal gusto. Cualquier persona que aspire a una Euskal Herria soberana, libre y justa tiene que estar escandalizada. Es imprescindible poner en marcha un proyecto para lograr estos objetivos: soberanía, libertad y justicia. Y, en la actual coyuntura, esto solo se puede hacer de forma unilateral. Todo lo contrario sería seguir insistiendo en esta especie de Síndrome de Estocolmo con txapela, kaiku, txistu y tamboril.

**Francia, paradigma del futuro de la Unión Europea.** Emmanuel Macron –ex banquero y figura creada por el establishment para gobernar Francia ante el descrédito de los partidos tradicionales– es desde el 14 de mayo de 2017 el vigesimoquinto presidente de la República Francesa. Macron ya ha conformado su primer gobierno, una especie de 'gran coalición' formada por un gabinete de ministros que combina socialistas, centristas, conservadores, un ecologista y algún independiente. Personas todas ellas del espectro político sistémico.

Una situación perfectamente resumida por Rafael Poch-Feliu, historiador y periodista catalán, actualmente trabajando en Paris. "En la propia Francia el macronismo es social y electoralmente frágil. Para cocinar la tortilla de su victoria ha tenido que quemar la cocina: el sistema de partidos, la alternancia y casi el pluralismo. Si el macronismo fracasa con su anunciada política de reformas duras por decreto, su alternativa en Francia podría ser, casi necesariamente, antisistema". Al fin y al cabo, el soberanimo difuso –como lo califica Poch-Feliu– y contrario a la globalización en los términos de hoy en día es mayoría (sólo el Front Nacional de Le Pen y la Francia Insumisa de Malenchon suman el 40%). ¿Estamos ante la última oportunidad del establishment para seguir gobernando Francia? Es posible.




# Indarberrituta!

ELAK EKAINAREN 15 ETA 16AN BILBON EGINDAKO KONGRESU KONFEDERALAK ADOLFO MUÑOZ BERRAUKERATU DU IDAZKARI NAGUSI GISAN, BOZEN %87,50 LORTUTA

**› GORKA QUEVEDO**

**Euskalduna Jauregia.** Goizeko bederatziak eta laurden paseak. Sirena hotsak entzuten dira. Pantaila erraldoian agortzera doan bateria bat agertzen da. Bat-batean ahots ezezagun batek gertatzen ari denaren inguruko azalpenak ematen hasten da. "Sistemaren errorea. Egungo sistemak huts egin du. Sistema ez da jasangarria. Sistemak berdintasunik eza, prekarietatea eta eskubide sozialen galera dakar. Sistemaren errorea". Begi-bistakoa da egoera larria dela, baina jarraian lasaitasunerako mezua entzuten da. "Sistema alternatiboaren karga hastera doa".

Tulun-tulun. Tulun-tulun. Tulun-tulun... Zintzarri hotsak entzuten dira. Euskaldunako bi alboetatik joaldunak areto nagusia zeharkatzen dute. Ondoren musika eta dantza ikuskizuna dator. Hutsik dagoen bateria kargatzen hasten da. Loading. Indarberritzen. ELAren Kongresua hastera doa. Azken urteetan egindako lanaz hausnartu eta etorkizunari begira jartzeko garaia.

**La propuesta de nuevo Comité Ejecutivo logró el 87,50% de los votos, por lo que AdolfoMuñoz será de nuevo el secretario general de ELA**

**Ekainak 15:** egindako lanaz hausnartuz. Soberan dago esatea azken lau urte eta erdi hauek oso biziak izan direla gure sindikatuarentzat. Egindako lana itzela izan da; langile klaseak egun bizi duen egoera latza ikusita ezin zitekeen bestela izan. Denbora honetan, hots, aurreko Kongresu Konfederaletik –2013ko urtarrilak 23 eta 24– hamaika gauza gertatu dira. Kongresuaren lehen eguna horren inguruan hausnartzeko balio izan zuen nagusiki. Hau da, Batzorde Eragileak aurkezten duen Kudeaketa Txostenaren aurkezpena, eztabaida eta bozketa.

Adolfo Muñoz, Txiki, idazkari nagusia, eta Amaia Muñoa, idazkari nagusiarenalbokoa, izan ziren Kudeaketa Txostena azaltzeaz arduratu ziren lagunak, azken Kongresu Konfederaletik egindako lana-




KUDEAKETA TXOSTENA




ADOLFO MUÑOZ

# “Sindikatuak inoiz baina politikoagoa izan behar du”

**Adolfo Muñoz Txiki** izan zen Batzorde Eragilearen izenean Kongresuko 736 ordezkarien aurrean kudeaketa txostenaren lehen zatia aurkezteaz arduratu zen pertsona. Muñozek azken kongresutik gaur arterainoko ibilbidearen errepaso zehatza egin zuen, oso baldintza gogorretan egindako lana. “Sistemak pertsonak kanporatzen ditu, eta gero hauei leporatzen zaie beren etorkizunaren ardura eta zoritxarra, elkartasun tresna guztiak ahultzen dituztelarik. Kapitalak, enpresariek, ez dute erantzukizun soziala beren gain hartu nahi. Ikusi besterik ez dago fiskalitatearekin gertatzen dena. Etekina pribatua da; porrota, indibiduala, eta norberari gertatzen zaionaren ardura ere bai. Indibidualismo basatiarentzako karta zuria. Oihaneko legea”.

Testuinguru latz honetan, ELA urte hauetan egindako lana goraipatu nahi izan zuen. “Gaur egun patronalak bere helburuak lortzeko duen oztopo nagusiena sindikatuak gara. Alderdi sistemikoak lehian dabiltza, ea ugazabak nork aseko dituen hobeto. Behin eta berriz esaten diete haien alde daudela. Gero eta zailagoa da bereiztea nor den gobernuko arduraduna eta nor enpresaria. Desoreka izugarria da. Patronalak ez du hainbeste laguntzarik behar. Ez dago sailburu, Ogasun Diputatu, Diputatu Nagusi edo Lehendakari izateko aukerarik baldin eta hautagaia patronalaren ikusmoldearekin bat ez badator”.

**Militantzia.** Azken urteetan ELAk egindako guztia ezinezkoa litzateke militantziarik gabe. Horregatik ELAko militanteek protagonismo berezia izan zuten Kudeaketa Txostenaren aurkezpenean. “Egindako lanaren merezimendua kolektiboa izan da. ELA erreferentzia eragingarria da euskal gizartean, hala uste dugu behintzat. Bere lana azterketa zorrotzetan oinarritzen du, eta plazaratzen dituen proposamenak datuez ondo horniturik agertzen ditu. Etsaiak azpilanetan darabil sindikalismoa hutsaren hurrengo izan dadin. Mundu maltzur honetan hutsaren hurrengo izan nahi ez duena garaiz oldartu behar da. Horregatik jarri dugu erdigunean antolamenduaren hobekuntza, badakigulako zein zaila den lan egiteko moldeak aldatzea eta ohituraren poderioz egiten diren gauzak beste era batera egitea”.

Muñozek argi utzi nahi izan zuen proiektu hau soilik posible dela gure sindikatuaren independentzia ekonomiko eta politikoari esker. “Botere politikoak ez dio zertan eman egiaztagutunik mugimendu sindikalari, zer egin behar duen eta zer ez baimentzeko. ELAk ez du hori onartzen. ELA harrotasunez agertu da bere autonomia politikoaren alde. Eta ELAko militanteak ere harro daude sindikatuaren autonomiaz, badakite gogor lan eginez irabazi duela, eta badakite autonomia hori irabazteko zer behar den: diru-iturri ia bakarra afiliatuen kuotak izatea”.




AMAIA MUÑOA, TESORERA

# “ELA es más autónoma que nunca”

**Amaia Muñoa, secretaria general-adjunta y tesorera,** fue la encargada de presentar la segunda parte del informe de gestión que presentó el Comité Ejecutivo. Muñoa quiso destacar durante su intervención que ELA hoy es más autónoma que nunca. “Desde el anterior Congreso las cuotas han seguido ganando peso –el 92,63% de los ingresos–. En este momento, nuestra autonomía financiera es ya del 94,40%. Eso supone una mejora de casi cuatro puntos respecto al anterior periodo congresual, lo que es un dato magnífico”.

Aunque en este periodo intercongresual ELA haya perdido afiliación –ELA llegó al anterior congreso con 105.312 personas afiliadas, frente a las 98.960 que tiene en la actualidad–, Muñoa destacó que esta tendencia se está invirtiendo. La secretaria general-adjunta y tesorera insistió en una idea que es una obsesión para ELA. “La afiliación nos da autonomía. No pueden acallar al sindicato porque no tenemos ataduras con nadie. Sólo nos debemos a nuestra gente. Y con la que está cayendo, no queda otra que seguir aumentando nuestra base afiliativa. Nuestro futuro pasa por ser cada vez más, trabajando en una misma línea de justicia social y solidaridad. Saber que nuestro proyecto depende exclusivamente de nosotros mismos, de la gente que componemos ELA, nos da una fuerza enorme”.

**Mayor representatividad.** Los magníficos resultados que ha obtenido nuestro sindicato en las elecciones sindicales fue otro de los ejes del discurso. “Llegamos al anterior congreso con una representatividad del 39,59% en la CAPV y del 21,26% en Navarra. Cuatro años después estamos en el 40,35% y el 23,10%, respectivamente. En la CAPV estamos cerca de nuestro récord histórico, pero en Navarra lo hemos superado ampliamente. Tanto es así que estamos a décimas del segundo sindicato en esta comunidad. UGT y CCOO ya no suponen la mayoría sindical en Navarra, una realidad impensable hace escasos años”.

Por último, Muñoa quiso destacar la importancia de la Caja de Resistencia para un sindicato reivindicativo como el nuestro. “Decir que apuestas por la negociación colectiva y no poner herramientas es pura demagogia, y más en los tiempos que corren. Uno de nuestros grandes hechos diferenciales es la Caja de Resistencia, que ha estado muy presente porque durante este cuatrienio han habido conflictos muy largos en el tiempo. Miles de trabajadores/as han resistido y ganado gracias a la solidaridad del conjunto del sindicato.

## El principal objetivo del Congreso se ha cumplido con creces: el sindicato sale reforzado para seguir afrontando los retos del futuro



ren inguruko gogoeta. Muñozek, egungo testuinguru ekonomiko eta sozialaren inguruko hausnarketa sakona egin ostean, sindikatua inoiz baina politikoagoa izan behar dela azpimarratu zuen bere parte hartzean. Amaia Muñoak, berriz, ELAren gakoa independentzia ekonomikoan eta politikoan dagoela defendatu zuen: "Afiliazioak autonomia ematen digu. Ezin dute sindikatua isilarazi, loturarik inorekin ez dugulako. Gure jendearen ez beste inoren esanetara gaude". (Oharra: 19. orrialdean Muñozen eta Muñoaren interbentzioen laburpen zabala jasotzen da).

Batzorde Eragileak Kudeaketa Txostena aurkeztu ostean, eskualde eta federazio ezberdinetako arduradunen txanda izan zen. Oholtzara igo ziren 15 lagun hauek (eskualdeetako 12 arduradunak eta 3 lanbide federazioetako idazkari nagusiak) txostenari erantzuteko aukera izan zuten. Interbentzio hauek sindikatuko erraiak lehen eskutik ezagutzeko aukera paregabea izan ziren. Erantzunen txandaren ostean, eta eguneko bozketa nagusiaren aurretik, idazkari nagusiak erreplikatzeko aukera izan zuen. la lehen egun osoan zehar luzatu zen eztabaida mamitsuaren ostean, Kongresuan zeuden delegatu-ordezkariek aho batez onartu zuten Batzorde Eragileak aurkeztutako kudeaketa txostena.

Kongresuko lehen egun honi amaiera emateko ELAk Bakearen Artisauei bere esker ona adierazi nahi izan zien. Gure sindikatuak lagun hauek egindako lan paregabea eskertu zuen ekitaldi xume eta hunkigarri batean. Omendu ziren artisau guztien artean gure sindikatuko militante Txetx Etcheverryk aipamen berezia izan zuen. Izan ere, bere egoera juridikoa dela-eta, ezin izan zuen zegokion tokian egon: Bilbon, ELAren Kongresuaren. Gure herri honen paradoxak; Euskal Herritar bat ezin Euskal

## Los delegados/as congresuales aprobaron por unanimidad el Informe de Gestión del Comité Ejecuvivo

Herrian zehar mugitu bakearen alde egindako lanaren ondorioz.

**Ekainak 16, etorkizuna eraikiz.** Bezperako egun luzearen ostean indarrak berreskuratuta, ekainaren 16ko goizean jarraipena eman zitzaion ELAren XIV. Kongresu Konfedaralari. Bigarren eta azken egun honek bi une nagusi izan zituen. Lehenengoa Ponentzia Orokorraren eztabaida izan zen; hau da, ELAk hurrengo urteetan jarraituko dituen ildo estrategikoak. Bigarren une garrantzitsua Batzorde Eragile berriaren hautaketa izan zen; hots, hurrengo Kongresua arte sindikatuaren zuzendaritzaz arduratuko den lan-taldea.

Lau izan ziren Ponentzia Orokorraren defentsa egingo zuten Nazio Batzordeko ordezkariak: Mikel Noval Joseba Villarreal, Leire Txakartegi eta Mitxel Lakuntza. Lauek Ponentziaren inguruko irakurketa luze eta pausatua egin zuten, alor ezberdinak jorratuz.

**Mikel Noval**ek azpimarratu zuenez, bidegurutze baten aurrean gaude, datozen urteetan berebiziko garrantzia izango duen bidegurutzea. "Kapitalaren eta bizitzaren arteko konfrontazio argi bat dago. ELAn bizitzaren aldeko hautua egin dugu. Eta bizitzak ez badu irabazten, gureak egin du. Biziraupena dago jokoan. Eta bizirauteko trantsizio ekonomiko, produktibo, erreproduktibo, sozial eta klimatikoa behar dugu".



"Eredu sozioekonomiko alternatibo honetan sakontzea beharrezkoa da, areago, ezinbestekoa, pairatzen dugun krisi sistemikoa dela-eta. Eraldatze horrek esan nahi du, halabeharrez, politika publikoak goitik behera aldatu behar direla, lehentasuna eman diezaioten bizitza eta Lurra jasangarriak izateari, eta ez enpresen eta kapitalaren interesei. Gainera, funtsezkoa da benetako alternatiba sozioekonomikoak sortu eta eraikitzea, eta eredu aldaketa honetan partaide diren eragileekin aliantzak sustatzea".

**Joseba Villarreal**ek negoziazio kolektiboa hartu zuen oinarri bezala Ponentziaren nondik norakoak azaltzeko orduan. Datozen lau urteetarako ardatzak ere zehaztu ditu bere partehartzean. "Helburu nagusia prekarietatearen aurkako borroka da. Egoera ezberdinei aurre egin behar diegu lan zentro zein sektoretan: lanaldi partzialak, outsourcing enpresak, Aldi Baterako Enplegu Enpresak, azpikontratazioa, miseriazko soldatak, lanaldi luzeak, lege iruzurra kontratazioetan, aldi baterako kontratuak...".

"Honetarako ezinbestekoak izango dira lan planak eta antolakuntza. Negoziazio kolektiboa eta antolakuntza txaponaren aurpegi bera direla esango nuke. Gatazkarako ahalmena irabaztea ezinbestekoa zaigu, eta sindikatuak dauzkan baliabide eta tresna guztiak horren zerbitzura jarri behar ditu: liberatuak, militanteak, zerbitzu juridikoak, kabinete ezberdinak..."

**Leire Txakartegi**k antolakuntza izan zuen ardatz. "Antolakuntza, zertarako?" galderari erantzuten saiatu zen Txakartegi: "pertsonak ahalduntzeko". Helburu hori lortzeko erakunde sendo

## El congreso comenzó con una batería a punto de acabarse y concluyó con la misma batería llena de carga. Objetivo cumplido: *Indarberrituta*




bat behar dugula azpimarratu zuen. "Aurreko kongresuan, lan eta negoziazio kolektiboaren erreformen ondoren, antolakuntza gogoeta bat hasia genuen. Geroztik, aldaketa garrantzitsuak egin ditugu: federazioen bategitea, federazioetako zuzendaritza eskualdeetara hurbiltzea sindikalizazioaren lana bultzatzeko... Martxan diren antolakuntza egokitzapen hauetan sakontzen jarraitu behar dugu lan zentroak eta sektoreak sindikalizatzeko, soilik eremu sindikalizatuetan lortuko ditugulako lan baldintza duinak eta aplikatzeko bermea duten lan-hitzarmenak".

## Además de la Ponencia General, en el XIV Congreso se aprobaron cinco resoluciones sobre diferentes temas

"Antolaketa-lana, definizioz, amaigabeko zeregina da gure ereduan funtsezkoak diren elementuetan: afiliazioan eta hauteskunde sindikaletan emaitzak hobetzea, sindikalizazioan eta langileen antolakuntzan urratsak ematea... helburu iraunkorrak dira guretzako. Esan beharrik ez dago guzti hau gero eta baldintza zailagoetan egiten ari garela, lan munduan nagusitzen ari den prekarietateak langileen babesgabetasuna eta zatiketa eragiten dituelako".

ELAk konpromiso argia du gure herriaren eskubide nazionalen defentsarekin. Horregatik **Mitxel Lakuntza**k gai hau hartu zuen ardatz gisa Ponentziaren arlo politikoa aztertzeko orduan. "Burujabetzaren aldeko prozesu baterako proposamena egin nahi du ponentzia honek. Egia da herri honek pultsu-politikoa galdu duela, baina horrek ez du esan nahi abian jartzeko aukera eta ahalmenik ez dugunik. Horretarako ahuleziak aitortu eta indarguneak bultzatu behar dira. ELAk gauza bat oso argi du: burujabetza prozesu hau soziala izan behar da, eta aldebakarretik bultzatu beharreko prozesua izango da. Horretarako aliantzak ezinbestekoak dira. Esaterako, ELAk eta LABek burujabetzaren aldeko prozesua aktibatzeko eta aberasteko dugun ahalmena oso handia da. Eta, era berean, jakitun gara erreferentzia politikoen beharra ere dugula. Arlo instituzionalean ere burujabetzaren aldeko prozesu sozial horren aldeko hautua norabide horretan joan behar du".

"Estatuak ahal duen bakoitzean agerian uzten du ez dagoela prest herri honetan hartzen diren erabakiak errespetatzeko. Beraz, eta ondorio bezala, ponentzia honetan argi utzi nahi izan dugu honako ideia hau: ez dago aldebikotasunik Euskal Herriko eta Espainiako instituzioen artean. Asmakizun bat da, gezur bat, hori bai, oso funtzionala politika neoliberalak sustatu nahi dituztenentzako".

Ponentzia Orokorraren aurkezpenaren ostean sindikatuko kide eta militanteek landutako zuzenketa ezberdinak eztabaidatzeko eta bozkatzeko txanda izan zen. Ondoren Ponentzia bere osotasunean bozkatu zen, eta aho batez onartua izan zen.

**Batzorde Eragile berriak, babes zabala.** Goizeko saioa amaitzeko Batzorde Eragile berria aukeratzeko txanda izan zen. Igor Eizagirre izan zen Nazio Batzordeak onartu eta proposatu zuen zerrenda aurkezteaz arduratu zen laguna. Arratsaldean, bazkaltzeko txandaren ostean, bozak zenbatu eta emaitzak jakitera emateko garaia heldu zen. Proposatutako zerrenda, aurkezten zen bakarra, Euskalduna Jauregian bildutako ordezkari sindikalen babes zabala jaso zuen, 623 aldeko bozekin (%87,50a).

## El acto sirvió para que todo el sindicato mostrara su apoyo a las trabajadoras de las residencias de Bizkaia

Idazkari nagusi gisa aukeratua izan ostean, eta Kongresuaren amaiera ekitaldiari ekin aurretik, Adolfo Muñozek bere lehen hitzaldia eman zuen idazkari nagusi gisa. Muñozek jasotako babesa eskertu zien Kongresuan parte-hartu duten ordezkariei, eta militantzia osoari dei egin zion datozen urteetan ere langile-klasearen eskubideen alde borrokatzeko. (Landeia honek bere hitzaldiaren kronika jasotzen da).

**Indarberrituta.** Indarberritzen izan zen XIV. Kongresu honen leloa, eta helburua aski soberan bete dela esan daiteke. Bezperan, goizeko 09:15tan hutsik zegoen bateria, kolore gorriz dir-dir egiten zuen leloa, guztiz kargatuta zegoen hurrengo egunean. Indarberrituta. Eta indarberritze horretan berebiziko garrantzia izan zuten Kongresu osoan zehar protagonista izan ziren Bizkaiko Erresidentzietako langileak. Kongresuari amaiera ikuskizunean izugarrizko borroka eredua eskaintzen ari diren emakume hauek oholtzara igo eta txalo zaparrada jaso zuten. ELA indarberrituta atera da Kongresu honetatik, eta Bizkaiko Erresidentzietako langileak ere. Aurki langile hauen garaipena ere ospatuko dugu. Ziur egon.

## BOST EBAZPEN, PONENTZIAREN OSAGARRI

**Guztira bost izan ziren XIV. Kongresu Konfederalean Nazio Batzordeak aurkeztu zituen ebazpenak.** Horietatik hiru aldez aurretik jakinak ziren: 'Alternatiba sozial eta ekologikoetan parte hartzeko konpromisoa hartzen dugu', 'Sindikalismo ez patriarkalaren alde indarkeria sexistarik ez' eta 'Euskaraz lan egiteko eskubidearen alde. Asimilazio kulturalaren kontra'. Hala ere, abaguneak horrela aginduta, azken unean beste bi ebazpen ere eztabaidatu eta bozkatu ziren: 'Gizarte-prestazio sistema unibertsalaren alde: eskubide sozialen alde, kriminalizazio eta xenofobiari aurre egin' eta 'Herrien askatasunaren alde. Errepublika katalanaren alde'. Ebazpen guztiak – sindikatuarentzat estrategikoak diren gai ezberdinen inguruan ELAk duen jarrera azaltzen duten erresoluzioak– aho batez onartuak izan ziren.



# Barne kohesio handia





**ELAren XIV. Kongresuan parte-hartu duten ordezkariek Adolfo Muñoz Txiki hautatu** dute datozen lau urteetan sindikatuko idazkari nagusi izateko, aldeko bozen %87,50 lortuta. Muñoz buru zuen zerrenda izan da aurkeztu den bakarra.

Hau izan da bozketaren emaitza:

BAI. 623 boz (%87,50).

EZ. 73 boz (%10,25).

Zuriak.16 boz (%2,25).

Baliogabeak. 3 boza.

Gauzak honela, horrela gelditzen da Batzorde Eragile berria, ELAren ordezkariek horrela erabakita.





## BATZORDE ERAGILEA

■ **Adolfo Muñoz**

Idazkari Nagusia. *Secretario general*

■ **Amaia Muñoa**

Idazkari Nagusi albokoa. Diruzaina. Iparraldea. *Secretaria general adjunta. Tesorera. Iparralde*

■ **Amaia Aierbe**

Zerbitzu Juridikoak. *Servicios Jurídicos*

■ **Xabier Anza**

Prestakuntza. *Formación*

■ **Iván Giménez**

Komunikazioa. *Comunicación*

■ **Laura Gónzalez de Txabarri**

Nazioarteko harremanak *Relaciones Internacionales*

■ **Pello Igeregi**

Negoziazio Kolektiboa. Lan Osasuna. Euskera. *Negociación colectiva. Salud laboral. Euskera*

■ **Mitxel Lakuntza**

Nafarroako Koordinazioa. *Coordinación de Navarra*

■ **Joseba Villarreal**

Sindikalizazioa. *Sindicalización*

■ **Mikel Noval**

Gizarte Politikak. Azterketa bulegoa. Ingurumena. *Políticas sociales. Gabinete de Estudios. Medioambiente.*

■ **Leire Txakartegi**

Planifikazio Estrategikoa. Genero Berdintasun politikak. Gizarte Ekintza. Inmigrazioa. *Planificación Estratégica. Política de igualdad de género. Acción Social. Inmigración*

■ **Eustakio Uranga**

Antolakuntza. *Organización*

LOADING...
INDARBERRITZEN

# Entre bambalinas



**Se suele decir que un Congreso es la puesta en escena del trabajo que ha realizado la organización en el cuatrienio anterior. Y es cierto. Pero esa puesta en escena es fruto, también, del trabajo escondido, entre bambalinas y a veces un tanto ingrato de las personas que forman parte de la organización. Un trabajo sin el cual ese Congreso no sería posible. Desde aquí, por tanto, un reconocimiento a toda esa gente que ha trabajado mucho y bien para que el XIV Congreso de ELA haya sido un éxito y un auténtico ejercicio de autoestima colectiva. Que buena falta nos va a hacer para afrontar los ambiciosos retos que nos hemos marcado...**
**Agradecimientos, a compartir, también, con quienes a través de la página web y las redes sociales se hicieron eco de lo que acontecía.**

**Argazkiak:** Xabier Otegi *Txapis,* Nerea Ispizua eta ArgazkiPress



















# Aliad@s y amig@s

## EL XIV CONGRESO DE ELA CONTÓ CON UNA AMPLIA PRESENCIA DE SINDICATOS Y ORGANIZACIONES SOCIALES VENIDAS DE TODO EL MUNDO



**› N.I.**

■ **CSC belga.** Mark Becker aseguró que ELA es un modelo para el sindicalismo en todo el mundo porque pone el conjunto de su organización al servicio de una sociedad más justa y le instó a que siga siendo un sindicato profundamente vasco pero con vocación internacional.

■ **PGFTU Palestina.** Shaer Saed desgranó las enorme dificultades que sufren los trabajadores palestinos, a los que calificó de "esclavos de Israel". Sin empleos, sin libertad de movimientos, sin derechos de ningún tipo, sufriendo un verdadero apartheid...

■ **Victor Báez, CSA.** El sindicalista argentino aseguró que democracia y capitalismo son conceptos que están en las antípodas; dijo que el poder se ejerce en red y que, por tanto, también puede ser desafiado en red; defendió el derecho de los trabajadores a no migrar y se despidió del congreso llamando a radicalizar el debate.



■ **Japp Wienen, de la CIS,** aseguró que organización y definir la política de alianzas es clave en un contexto en el que el 45% de los trabajadores en el mundo no gana lo suficiente para vivir. Y ese dato se reproduce, cada vez más, en los países llamados desarrollados.

■ **Peter Scherrer, de la CES** reclamó reformas sociales justas y acabar con las llamadas políticas de austeridad de los distintos gobiernos. Anunció, también, una próxima campaña a favor de subidas salariales en los convenios. Finalmente, aseguró que el poder de un sindicato viene de los afiliados y afiliadas y no del diálogo social. Un diálogo al que se mostró favorable sólo si es con contenidos.

■ **Quebec.** Natalie Guay insistió en el hecho de que hacen falta alternativas verdaderas desde la izquierda a la situación actual. Alternativas que, en su opinión, deben apostar por la diversidad y por lo social. Finalmente, esta sindicalista defendió el derecho de las naciones sin estado a serlo, y desde ahí conectarse con el mundo.

■ **UGT Sario.** Kasisa relató la represión que está sufriendo su pueblo y sus líderes a manos del gobierno corrupto marroquí y reivindicó que se cumplan las resoluciones internacionales, la celebración de un referémdun de autodeterminación, la liberación de los presos políticos, esclarecimiento de los desaparecidos, la apertura a los observadores y la prensa internacional...

■ **CIG.** Paulo Carril, secretario general, comparó la situación del sindicalismo vasco y gallego al afirmar que "nosotros tenemos al PP, vosotros al PNV", y asegurar que "cuando más arrecien las campañas contra nosotros, más fuertes nos hacen". El lider sindical gallego dijo que hay que reforzar la respuesta y que el camino para ello es mejorar la organización y acumular fuerzas con otras organizaciones sindicales y sociales.

■ **Reas.** La representante de Comedores escolares, tras denunciar que el poder económico –el neoliberalismo– ha convertido a la comida en un negocio y no en fuente de salud, explicó que la única salida lógica de esta sociedad es impulsar un proceso de soberanía alimentaria basado en la transparencia y la ética, y que tenga en cuenta, también, la visión de equidad de género.

■ **ESK. Isabel Castro** destacó la necesidad que tiene el movimiento sindical de reforzarse y de ser capaces de trabajar juntos, "poniendo en valor lo que nos une, cada uno desde su ámbito y tamaño, con respeto y aceptando la diferencia". Y es que ante el cambio de paradigma social se hace imprescindible crear alianzas fuertes.

■ **STEILAS. Ana Pérez** se refirió a la lucha que junto a ELA y LAB están manteniendo en defensa de la calidad de la enseñanza pública, columna vertebral de la sociedad que queremos construir. Una enseñanza pública que lleva años sufriendo las consecuencias de los recortes, a pesar de los mensajes contrarios del gobierno. Apostó por seguir trabajando juntos, creando alianzas y complicidades.

■ **ELB. Panpi Sainte Marie** realizó un recorrido de su historia de trabajo en común con ELA creando alternativas y destacó la importancia y referencialidad de la Euskal Laborantza Ganbara para toda Iparralde, proyecto en el que ELA tuvo una importancia vital. Panpix reivindicó el papel de su sindicato y mostró su deseo de ser aliados preferenciales de ELA, "no sólo LAB", causando los aplausos del auditorio.

■ **Hiru. Bittor Galarza** afirmó que los trabajadores debemos de ser protagonistas de la sociedad civil, "si no, sólo vendrán retrocesos" y que "la apuesta es reforzar la mayoría sindical y ofrecer alternativas a las trabajadoras y trabajadores".



■ **LAB. Garbiñe Aranburu** dijo que "no van a integrar a la mayoría sindical vasca en el sistema porque somos el paraguas de los trabajadores/as". Afirmó que "en Euskal Herrria sí hay organizaciones que apostamos por el cambio social y estamos dispuestos a luchar y movilizarnos para conseguirlo". Dijo, también, que "no hay cambio social sin soberanía, pero al revés tampoco". Finalmente, aseguró que ELA y LAB son dos proyectos distintos pero "estamos dispuestos a colaborar y trabajar juntos". "Es tiempo de ello", rubricó.

ARTESANOS DE LA PAZ, MIEMBROS DE ELA FALLECIDOS EN ESTE CUATRIENIO, MUERTOS EN ACCIDENTE LABORAL Y TRABAJADORAS DE LAS RESIDENCIAS DE BIZKAIA, COMO EJEMPLO DE MILITANCIA, RECIBIERON RECONOCIMIENTO EN DISTINTOS MOMENTOS DEL CONGRESO




# Héroes de la sociedad civil



**Xabi Anza junto a Jean-Louis Dupin, Michel Larralde, Anne-Marie Bordes, Stéphanie Carré, Flo Aniotz y Juliette Bergouignan, viuda de Mixel Bergouignan, detenido en la operación de Luhuso y fallecido en mayo tras una larga enfermedad.**

**N.I.**

**Antes de empezar con el reconocimiento a la labor de los Artesanos de la Paz** -acto final del primer día del Congreso-, Xabi Anza quiso hacer mención especial al homenaje que precisamente cuatro años antes recibió Valentin Bengoa en ese mismo escenario. Un Valentín Bengoa que fallecía el pasado 25 de febrero, a los 94 años, y al que los presentes dedicaron una atronadora salva de aplausos.

Anza explicó el ingente trabajo de los artesanos de la paz en favor del desarme de ETA, y cómo cinco –entre ellos, el militante de ELA Txetx Etcheverry– fueron detenidos en la operación policial de Luhuso y puestos en libertad con cargos unos días después.

Xabi Anza afirmó que "en el manifiesto leído en Baiona el pasado 8 de abril se decía que la paz exige valentía, voluntad de tomar riesgos, compromisos profundos y generosidad. En ello han sido maestros todo el colectivo de personas que componen los denominados Artesanos de la Paz. Una experiencia única e inspiradora en los procesos de paz a nivel internacional".

"La lección que nos dejan –continuó– es que siempre se puede hacer algo, y que lo que parece inamovible, ya sea un estado, una patronal, se puede mover, con organización, creyendo que se puede, haciéndolo", animó.

Xabi Anza explicó que el deseo de ELA hubiera sido rendir reconocimiento público y presencial a Mixel Berhokoirigoin y Txetx Etcheverry, pero ante la prohibición que tienen para salir del estado francés hubo que cambiar de planes y recibir un saludo de ambos en un video realizado al efecto. Luego, ya en directo, subieron al estrado cuatro personas –artesanos de la paz protagonistas del acto del desarme en Baiona del 8 de abril– y la viuda de Mixel Bergouignan, detenido también en Luhuso y fallecido posteriormente que tomó la palabra para agradecer el reconocimiento, y a la que se le hizo entrega del logo del III Congreso de ELA.



**Arriba: Los bailarines se tiñen las manos de azul, símbolo de los Artesanos de la Paz. Abajo: minuto de silencio por los muertos en accidente laboral, acto final Congreso con las trabajadoras de las Residencias en el escenario y Valentín Bengoa.**









# “A pesar de las dificultades, la ilusión allana el camino”

EL SECRETARIO GENERAL DE ELA, MUY SATISFECHO DEL DESARROLLO DEL XIV CONGRESO, HACE UN CANTO A LA MILITANCIA PARA PODER LLEVAR ADELANTE EL MANDATO REALIZADO. “SIN MILITANCIA NO HAY SINDICATO”, ADVIERTE




› **N.I.**

**Contento y con ganas de seguir afrontando los retos que se ha marcado ELA para los próximos años.** Así se muestra Adolfo Muñoz Txiki tras ser reelegido, por tercera vez consecutiva, secretario general de ELA. “A pesar de la difícil coyuntura, a pesar de los ambiciosos retos que nos hemos marcado, la ilusión allana el camino”, afirma con rotundidad.

**-Zorionak. El nuevo comité ejecutivo de ELA ha obtenido el apoyo del 87,50% de los delegados y delegadas, y la gestión de los últimos cuatro años ha sido unánimemente respaldada.**

-Tras el congreso, lo primero que quiero hacer es agradecer el trabajo de todas y todos. Nuestra gente salió muy contenta y orgullosa de formar parte de ELA. Eso es, por encima de todo, lo más importante: la ilusión de todas y todos.

A veces, para dar dimensión a lo que somos y hacemos, es bueno escuchar a los que vienen de fuera. ¿Cómo nos ven? ¿Qué dicen de ELA y de nuestros actos? Todas las personas invitadas han vuelto a sus respectivos países con una gran satisfacción por haber podido asistir a un Congreso como el nuestro.

**-Viene lo difícil, pasar de las palabras a los hechos.**

-Ahora, cada compañero o compañera vuelve a lo suyo, al trabajo diario, a tratar de llevar a la práctica lo aprobado en nuestro Congreso. Al hacerlo, sabemos que formamos parte de una organización en la que muchos y muchas compañeras se dedican a hacer sindicalismo de forma honesta, a la manera de ELA.

Una tarea dura en tiempos difíciles. Una tarea imprescindible al servicio de la gente que más lo necesita. Una tarea en la que comprobar que hay mucha más gente que se dedica a lo mismo que tú, te da fuerza y autoestima para seguir trabajando.

Es importante ser humilde, pero eso no es incompatible con que afirmemos que en Euskal Herria existe una organización como ELA. Con una identidad, una ideología y unos compromisos con nuestra clase y con nuestro pueblo, Euskal Herria.

**Sindikatua politikoa izango da eta kalean jendeari kezkatzen zaizkion gaiak jarriko ditugu zentroan. Hala izaten jarraituko du, nirekin eta ni gabe. Nahi eta nahi ez**

**-Muchos ojos y oídos han estado puestos en nuestro Congreso. No en vano dedicaste parte de tu informe de gestión a reafirmar el carácter político de nuestra organización y su derecho a defender un determinado modelo de sociedad, de país. ¿Qué tienes que decir al respecto?**

-La gran fuerza de ELA es su cohesión interna y el trabajo en equipo. En ELA no se elige un secretario general, se elige una dirección colegiada. Un grupo humano, con reparto de responsabilidades, encargado de gestionar las decisiones del sindicato.

Y ese sindicato cohesionado ha dado unos mandatos muy claros cara a los próximos cuatro años. Por eso, cuando deje la dirección del sindicato, no habrá cambios de calado en la política de ELA porque la dirección del sindicato que esté tendrá que seguir respondiendo, igualmente, al mandato que los y las congresistas nos han dictado los pasados 14 y 15 de junio: reforzarnos cada vez más, luchar, plantear alternativas, trabajar por otro mundo más justo y solidario, inclusivo, equitativo, diverso.

El sindicato seguirá siendo político y hablando de lo que importa a la gente de a pie, a nuestra gente. Conmigo y sin mí. Les guste o no.

**-¿Cómo sale ELA de este XIV Congreso?**

-Reforzada, ilusionada, con las pilas cargadas, en línea con el lema del Congreso.

Sabemos quiénes somos y no lo olvidamos: un sindicato abertzale de clase. Sabemos para qué exisitimos: para defender a la clase trabajadora y trabajar por una sociedad justa y solidaria . Y sabemos cómo lo vamos hacer: organizados, a través de la lucha sindical y social, para tener capacidad de influir en las políticas.

## Krisi sistemikoan murgilduta gauden garaiotan eta aliantzak eta alternatibak eraikitzen ari garen momentu honetan, ezinbestekoa da militanteak zaintzea

Hemos visto en el Congreso que el sindicalismo tienen los mismos problemas en todo el mundo, que el poder político está supeditado al poder económico. Y esa realidad tenemos que denunciarla sin ambigüedades. Eso marca nuestro diagnóstico y nos lleva a ser sindicato de contrapoder. No hay otra opción, no hay otra alternativa que aspirar y prepararnos para ser contrapoder; las Mesas de Diálogo social no dan nada.

**-En Euskal Herria, como en casi todo el mundo, están intentando acallar al sindicalismo revindicativo.**

-El poder político y económico nos quiere pobres, sin derechos, y pretende, además, que el sindicalismo esté calladito. Nosotros no nos vamos a callar, y tampoco nos van a acallar.

El sindicato perdería su norte si dejara de hacer propuestas políticas sobre fiscalidad, vivienda, servicios públicos, modelo de sociedad... Todo es política. Si les gustara lo que decimos, si nos dedicáramos a darles coba no les importaría que habláramos de política...

**-¿Qué destacarías de los mandatos que han salido del Congreso?**

-Hay tres campos en los que tenemos que incidir, fundamentalmente. El primero, trabajar las alternativas, que nos van a dar la caja de resonancia social de la que Bernardo Atxaga hablaba en su día.

Y si hablamos de construir alternativas tenemos que hablar, también, de las alianzas. Hoy por hoy, si algún revulsivo se puede dar en el ámbito vasco, ése va a venir del sindicalismo de clase y abertzale. Tenemos que resolver los problemas que existen para desplegar toda su potencialidad, empezando por los desencuentros en la negociación colectiva.

El segundo mandato es llevar adelante el plan de equidad de género: el sindicalismo, ELA, está en deuda con la igualdad. Y vamos a hacerlo por eficacia y por coherencia.

Y el tercero es mejorar en planificación estratégica. Los enemigos planifican nuestra derrota; nosotros debemos planificar nuestro trabajo estratégico para no ser una organización irrelevante.

**-Se ha hablado mucho de soberanía y de autogobierno.**

-Hace años estuvimos en Escocia, antes del referéndum de autodeterminación, y Alex Salmond nos comentó que había tres claves fundamentales para ganar en un proceso soberanista. El primero, la identidad: somos vascos; es un hecho, hay una identidad, pero eso no es suficiente. El segundo, la democracia. La gente quiere decidir, no le gusta que las decisiones se tomen lejos y de manera antidemocrática. Y el tercer pilar para ganar un proceso soberanista es lo social. Por eso, ELA cree que la mayor aportación que podemos hacer a un proceso soberanista es defender los derechos de la clase trabjadora y ayudar a construir un sistema social potente, justo y solidario. Porque el neoliberalismo destruye la soberanía y la cohesión social de los pueblos.

Por eso, afirmamos que es incompatible decir que se apuesta por el autogobierno vasco y, a la vez, apoyar los presupuestos del PP; siendo aliado del PP. De esa manera sólo se refuerza la España intolerante y antidemocrática.

**-El Congreso concluyó con un homenaje a la miitancia. ¿Por qué?**

-En estos tiempos tal convulsos de crisis sistémica y de construcción de alianzas y alternativas es imprescindible cultivar militantes, buscar gente dispuesta a este compromiso. Tenenemos que salir a la calle, sin complejos, y contagiar ilusión por un proyecto como ELA, imprescindible para la Euskal Herria que queremos. Sin militancia no hay sindicato.



## LANGILE INDARRA

**› NAGORE URIARTE**

**Inplikazioa, lana eta borroka; bizitzeko modu bat; konpromisoa; elkartasuna; harrotasuna; ahalduntzea...** Guzti hori da militantzia ELAko XIV. Kongresuan parte hartu zuten militanteentzat. Hala adierazi zuten hitza eman zitzaienean, Kongresuaren itxiera-ekitaldian protagonista izan baitziren. “Neretzat militantzia kolektiboa da, eta gauza ederra da...” zioen militante batek; eta hain zuzen ere, kolektibo zabal eta anitzari zuzendu zitzaion Txiki Muñoz Idazkari Nagusiak, leloak zioen bezala, Kongresu osoan zehar #indarberritzen egon eta gero, dagoeneko ahaldunduta zegoen militantzia zabalari.

Hala behar du izan gainera, bere hitzetan, “ez baitago kontra-botereko proiektu sindikalik militantziarik gabe”. Horixe izan zen bere diskurtsoaren muina. “Sindikalgintzak nekez lortuko du langile klasea defendatzea eta, ondorioz, bizitza duina bermatzea, horrek guztiak eskatzen duen lana aurrera ateratzeko ilusionatuta dagoen militantziarik gabe”.

Anekdota txikiek ematen dute askotan errealitate sakonen benetako neurria. Horren jakitun, anektoda bitxia konpartitu zuen Idazkari Nagusiak: Gasteizko bi lankide Bizkaiko Erresidentzietako kanpaldira joan ziren babesa ematera eta bueltan konturatu ziren babesa eta indarra gebalariek eman zietela eurei. “Halako ekimenek gorpuzten dute sindikatua”, baieztatu zuen Muñozek.

Zentzu horretan, mezu argia du. “Bueltatu gaitezen lanera indarberrituta, Kongresuan onartutakoa martxan jartzera, sindikalgintza zintzoa egitera. Zaila da garaiotan baina ezinbestekoa eta bideragarria; bere nortasun eta ideologia duen erakundea baita gurea, gure klasearekiko eta Euskal Herriarekiko konpromisoa hartu duena”.

Lan kolektiboari, beraz, nagusi izan zen Idazkari Nagusiaren diskurtsoan. “Atera zaitezte kalera, irten gaitezen, kontatu ezazu, dezagun, zabaldu dezagun ilusioa, nahiko genukeen Euskal Herria irudikatzeko ezinbestekoa den proiektu honetan sinisten dugulako”.

# “Hezkuntza batez ere politika da”

PILAR CARRERA SANTAFE ETA EDUARDO LUQUE GUERRERO, ‘NOS QUIEREN MÁS TONTOS. LA ESCUELA SEGÚN LA ECONOMÍA NEOLIBERAL’ LIBURUAREN EGILEAK



› GORKA QUEVEDO

**Pilar Carrera Santafe eta Eduardo Luque Guerrero irakasleak urteak daramatzate hezkuntzaren alorrean lanean.** Iaz ‘Nos quieren más tontos. La escuela según la economía neoliberal’ liburua argitaratu zuten. Berriki ELA-Irakaskuntzak antolatutako jardunaldi batzuetan egon dira liburua aurkezten.

**-Inozoagoak nahi gaituzte. Hala dio liburuak. Zergatik?**

-Liburua galdera bati erantzuteko asmoz sortu zen: zergatik dago eskola dagoen bezala? Arazoa ez dago psikologiaren edo pedagogiaren eremuan, soziologian eta ekonomian baizik. Hezkuntza sistemaren krisia aztertzeko ikuspuntu berritzailea hartzen saiatu gara. Guk politikaz hitz egin nahi dugu, hezkuntza batez ere politika delako.

**-Nondik dator, orduan, hezkuntza sistemaren krisia?**

-Hezkuntzaren krisia ez da egungo kontua, gizakia gizaki denetik dago eztabaida hau. Hezkuntza beti egon da gatazkan, beti egon dira arazoak. Gaiari buruzko idatzizko lehen arrastoak Mesopotamian aurkitu dira, 3.000 urte inguru dituzten idatzietan. Egungo hezkuntza eredua ez da hutsetik sortu, ildo nagusiak duela urte asko ezarri ziren, eta baditu bere ‘aita-amak’.

**-Zeintzuk lirateke?**

-Hezkuntza neoliberalismoarekin erabat lotuta dago. Bere teoriko handienak neoliberalismoaren berberak dira. Ludwin Von Milnes –nazismoan ardura handiak izan zituen laguna– da neoliberalismoaren “aita” nagusia. Bigarren Mundu Gerraren ostean Ameriketako

## El objetivo del sistema es tener una pequeña élite que se forme en selectas universidades privadas y una gran masa ‘tonta’, con pocos conocimientos

## El Banco Mundial ha decidido que España tiene que vivir del sol y de la playa. No hace falta que se tengan grandes conocimientos. Basta con saber inglés y tener don de gentes para relacionarse con los turistas y servirles cerveza. Quieren una sociedad idiota

Estatu Batuetan ezarri zen, eta bere iraganagatik unibertsitateetan kargurik izan ez bazuen ere, izugarrizko eragina izan zuen garaiko intelektual handienetan. Neoliberalismoaren ideologo hauek hartu dituzten erabakiek eta garatu dituzten teoriek ezinbestekoak dira hezkuntzaren oinarriak ulertzeko.

**-Hortaz, hezkuntza sistema ideologia zehatz bati lotuta dago...**

-Bai. Edozein hezkuntza eredu batez ere eredu politiko bat da. Hezkuntzak helburu, eduki eta baloreen artean aukeratzea dakar, eta aukeratzeak oinari ideologiko bat dakar. Aukeraketa ikuspuntu politiko eta sozialen arabera egiten da. Hezkuntza gauza bat eta politika beste bat dela dioten horiek edo erratuta daude edo gezurretan ari dira.

Politika hezkuntzaren ama da. Iragan mendeko desastre handietan hezkuntzaren eragina agerikoa izan zen. Lehen Mundu Gerran Frantziako eta Alemaniako milaka eta milaka soldadu hil ziren. Eskolan behin eta berriz erakutsi zieten ez zegoela aberria baina gauza handiagorik, harengatik hil behar baldin bazen hil beharra zegoela. Eskolan ez zien inork irakatsi soldadu horiei eskuan zituzten armak arma fabrikatzaile handiek egindakoak zirela –Schneider edo Krupp–, eta horiek izan zirela gerra bultzatu zutenak, negozio oparoa zelako.

**-Hezkuntza sistema neoliberalismoaren esanetara dagoela diozue liburuan. Nola gauzatzen da hori?**

-Giza-kapitalaren teoriaren iruzurraren ondorioak pairatzen ari gara. Teoria hau Von Milnesen bi ikaslek garatu zuten: Theodore Schultz eta Gary S. Becker. Nobel saria ere eman zieten. Asko sinpletuz, hauxe diote: pertsona batek 'enpleagarria' izan eta arrakasta eduki nahi badu –noski, eurek arrakasta ulertzen duten moduan– giza-kapitala pilatu behar du, ezagutza kognitiboa. Hori kurtsoak, karrerak, masterrak eta abar eginez lortzen da, baina baldintza batekin: norberak bere ikasketak ordaintzea. Horraino iritsi gintezke!

Baina larriena ez da hori. Larriena da frogatua dagoela teoria hori justifikatzeko erabili zituzten formula matematikoak gezur hutsa zirela, faltsuak. Ikuspuntu zientifikotik inoiz ezin dena egin egin zuten; erabaki zein zen nahi zuten emaitza eta horren arabera moldatu formulak. Zergatik eman zieten Nobel saria? Kapitalismoa sistema bezala justifikatzen duen eredu bat garatu zutelako, gezurra izan arren.

**-Giza-kapitalaren teoriaren iruzurrak ondorio larriak izango dituela diozue. Zeintzuk?**

-Ameriketako Estatu Batuetan edo Erresuma Batuan ikasleak izugarri zorpetu dira. Unibertsitatetik ateratzen ari den belaunaldi berri hau bizitza osoan zehar pobrea izango da, nekez ordaindu ahal izango ditu eskatu dituzten kredituak. Gizartearen sektore jakin baten pobrezia sistematizatuaz mintzo gara. Espainiar Estatuan aurki banku handiak tokian tokiko masterrak egiteko kredituak eskaintzen hasiko dira. Master horiek, oso garestiak, ezinbestekotzat salduko dituzte. Kreditu horiek eskatzen dituzten ikasleek ez dute inolako bermerik izango gero kualifikazio handiagoko lanpostu edo soldata bat izateko.

Giza-kapitalaren teoria egia balitz Espainiar Estatuaren egoera ekonomikoa askoz hobea izango litzateke; fakultateetatik ateratzen ari diren ikasle hauek oso preziatuak izango lirateke, oso soldata altuak izango lituzkete. Hala ere kontrakoa bizitzen ari gara. Izugarrizko ezagutzak dituzten ingeniari asko dago oso soldata baxuekin edo ahal dutenean lanean: garbitzen, zerbitzari, sukaldean...

**-Liburuan tarte handia eskaintzen diozue teoria eta ideologia hauek hezkuntza sisteman ezartzen dituztenei: mundu politikoa.**

-Hezkuntza sistema neoliberalismoaren bultzatzaileek erabaki eta gero politikoek aplikatzen dute. Hezkuntza pedagogiarekin zerikusi gutxi duten erabakiekin lotuta dago. Adibidez, iragan mendeko 80. hamarkadan, Espainiar Estatuari baldintza bat jarri zitzaion Europar Batasunean sartzeko: desindustrializazazioa. Etorkizunean bere industriek ezin izango zuten Alemaniakoekin lehiatu, honek bere nagusitasuna mantentzeko. Horren truke Europar Batasunak erabaki zuen Espainiak bazituela esplotatu beharreko bi baliabide: eguzkia eta hondartza. Hori Munduko Bankuak erabaki zuen, Europar Batasunak agindu eta Felipe Gonzalezen gobernuak ezarri.

Hezkuntzan eragin gehien duen erakundea Munduko Bankua da. Bere txostenak gure hezkuntza sistemen oinarriak dira. Eta Munduko Bankuak argi dio Espainiar Estatua turismoari lotutako herrialdea izan behar duela. Horregatik ez du ezinbestekotzat jotzen bertako curriculumean ezagutza maila handiak egotea. Hau Alemanian ez da gertatzen. Bertan esfortzuari eta ezagutzari garrantzia handia ematen zaio, gutxieneko gaitasun batzuk izango dituzten enplegatuak behar dituztelako euren lantokietan produzitzeko. Espainian esfortzua ez da beharrezkoa, gazteak turismoko zerbitzari izatera zuzentzen ari direlako; hizkuntzak jakitearekin eta turistekin harremanak izateko gaitasunak izatearekin aski da. Espainiar Estatuan ezagutza gutxiko jendea sortzea dute helburu.

Noski, beti egongo dira unibertsitate pribatuetatik aterako diren goi-mailako ingeniariak, pentsatuko duen jendea, baina hori beti eliteen gutxiengo bat izango da. Masa, herria, gehiengoa, inozoa nahi dute. Europar Batasunaren helburu nagusia hezkuntza enpresaren munduaren zerbitzura jartzea da.

**-Ideologia sistemaren mesedera...**

-Ekonomian badago inork gutxi eztabaidatzen duen axioma bat: herrialde batek Barne Produktu Gordinaren %90aren zorra gainditzen badu munduko kataklismo guztiak gertatuko zaizkio. Muga hori gainditzen denean murriztu eta murriztu beharra dago, bestela ekonomia hondoratu egingo da. Teoria hau Ameriketako Estatu Batuetako bi ekonomialarik garatu zuten, Nobel sarirako hautagaiak ere. Gradu osteko ikasle batek teoria hori sendotu nahi izan zuen bere doktore-tesian. Formula matematiko horiek hartu eta kalkuluak egiten hasi zenean harrituta geratu zen: datu ezberdinak ateratzen zitzaizkion. Bere errorea aurkitu asmoz tesi zuzendariarengana jo zuen; berari ere bere emaitza berdinak atera zitzaizkion. Biak erratuta zeudela sinetsita, beste irakasle batzuengana jo zuten. Azkenean konturatu ziren formulak faltsuak zirela, eta emaitzak, okerrak.

Izugarrizko iskanbila sortu zuen, eta Nobel sariaren hautagai zerrendatik kendu zituzten, baina ez euren lanetatik; Obamaren administrazioan goi-karguak izaten jarraitu zuten, Banku Zentralaren kudeaketan. Kasua ezkutatu nahi izan zuen, formula faltsu horiek primerako aitzakia zirelako Europa hegoaldeko herrialde ezberdinen kontrako neurri ekonomikoak eta murrizketak justifikatzeko. Gezurren mundu batean bizi gara.

**-Zer egin dezakegu egoera hau iraultzeko?**

-Sistema goitik behera irauli. Hezkuntzatik inoiz desagertu behar ez luketen baloreetara itzuli beharra dago. Hezkuntza ludikoaren alde eginaz jakintza bigarren maila batean utzi dute. Umeak eskolara sartzen direnetik ateratzen direnera pozik egon behar dira, hezkuntzak dagoeneko ez du esfortzurik suposatu behar. Esfortzuari uko egite horrekin ikasle inozoak nahi dituzte. Euren helburua inozoz betetako gizarte bat lortzea da. Aski dute elite txiki bat egotea. Horretarako gainontzekoak marko ekonomiko honen menpe egongo garen masa inozo baten gisan nahi gaituzte.

## La educación es, sobre todo, política. Quienes dicen lo contrario o están equivocados/as o mienten. El Banco Mundial es la organización que tiene una mayor influencia en el sistema educativo

## Si la teoría del capital humano fuera cierta, los jóvenes de hoy tendrían grandes sueldos. Hay muchos estudiantes con brillantes expedientes académicos cobrando sueldos muy bajos o con trabajos de baja cualificación



# ELAk bere militantzia Goienerrera pasatzera animatzen du!

› **NORA ONAINDIA**

**ELAren 14. Kongresuak bere egin du *Sistema aldatu, ez klima* leloa.** Bide horretan, konpromisoa hartu du eraldaketa modu integralean bultzatzeko, beti ere ekoizpen, banaketa eta kontsumo sistemari logika sozial eta ekologikotik begiratuz.

Erronka hau ez da batere erraza. Parean dugu irabaziak maximizatu eta etekin pribatuak biderkatzea soilik nahi duen sistema. Sistema krudel honek egoera sozial eta ekologikoaren gordintasun eta larritasuna ezkutatzen digu, eta jada martxan ditugun alternatibak utopia hutsa direla sinestarazi nahi digu. Horregatik, gure lana jendartea kontzientziatzea da, alternatibak posible direla transmititzea, ikusgarri jartzea, eta aliantzak eta konfiantza lantzea. Izan ere, alternatibak errealak dira, existitzen dira. Eta beroiekiko jarrera proaktiboa izatea da egin dezakegun gauza onena. Sistemari aurre egiteko modurik praktikoena.

Ekoizpen, banaketa eta kontsumo sistemak eraldatzeko bidean, ekonomia sozial eta ekologikoaren baitako egitasmoak indartzea gakoa da. ELAk eman ditu pausu garrantzitsuak bide horretan. 2014an, adibidez, sindikatuaren argindar hornitzaileak aldatzeko erabaki irmoa hartu genuen: enpresa kapitalistak alde batera utzi, eta Goiener kontsumo kooperatibara egin genuen jauzi, gure egoitzak energia berriztagarriz soilik hornituz.

**Energia iturrien gaineko kontrola berreskuratzea.** Goiener kontsumo kooperatibaren helburu nagusiarekin bat egiten du ELAk: jendarteak, energia iturrien gaineko kontrola berreskuratzea, bere garrantziaz kontzientziatu eta energia kontsumo arrazional eta efizientea bultzatuz.

Orain pausu bat harago joan nahi dugu. Aldaketa ELA osatzen dugun guztiongana iristea nahi dugu. Izan ere, energia kontsumitzaile garen heinean, gakoak gara eraldaketa lortzeko. Gakoak gara sistema iraultzeko.




Guztion indarra batzen badugu, eta gure kontsumoa aldatu, sistema behartuko dugu energia berriztagarrien ekoizpena biderkatzera. Behartuko dugu bestelako energia iturriak baztertzera, energia nuklearra, ikatza edota gasa, adibidez. Horregatik, pausu txiki bat emateko garaia iritsi zaigu guztioi, pausu txiki baina eraginkorra: hornitzaile elektrikoz aldatzea.

**Eta nola aldatu hornitzailez?** Oso erraza da!

Lehenik, Goiener kooperatibako bazkide izan behar duzu; horretarako webgunean formulario bat bete behar da datu pertsonalekin, eta 100 eurotako ekarpen bakarra egin kapital sozialera (bazkidetza uztean zenbateko hau itzuliko litzaizuke). Horrela kooperatibako bazkide bilakatuko zara, botoa emateko eta erabakietan parte hartzeko eskubidearekin. Goienerrera pasatzeko ez dago instalazio elektrikoan aldaketarik egin beharrik.

Ondoren, online egindako beste tramite soil batekin bezero bihurtuko zara, eta sistema eraldatzeko pausu garrantzitsua emango duzu.

*Bere webgunean: http://**www.goiener.com/eu/izan-bazkide/**

*Posta elektronikoa erabiliz: **bazkidetza@goiener.com**

*Telefonoz: **943 088 444** (astelehenetik ostiralera, 10:00-13:00 bitartean)

## ¡CÁMBIATE A GOIENER!

**Goiener, cooperativa de consumo y generacion de energía renovable, nace con un objetivo principal ampliamente compartido por ELA: conseguir que la ciudadanía recupere el control sobre la energía y se conciencie sobre su importancia, promoviendo un consumo más racional y eficiente de energía.**

**Si unimos nuestras fuerzas y cambiamos nuestro consumo, obligaremos a generar más y más energía renovable y a abandonar otras fuentes de energía como la nuclear, el carbón o el gas. Por eso, tenemos que dar el pequeño paso de cambiar nuestra comercializadora eléctrica.**

**¿Cómo nos cambiamos de comercializadora? ¡Es muy sencillo!**

**En primer lugar, te asocias a la cooperativa rellenando un formulario online con tus datos personales y haciendo una única aportacion al capital social de 100 euros, que es reembolsable. De esta forma, te haces socia/o de la cooperativa, tienes derecho a voto y a participar en las decisiones.**

**Para pasarte a Goiener no tienes que realizar cambio técnico alguno en la instalación. Posteriormente, por medio de otro sencillo tramite online, te haces cliente.**

***En su web: www.goiener.com/hazte-socio/**

***Por correo electrónico: altasocio@goiener.com**

***Por teléfono: 943 088 444. (De lunes a viernes, de 10:00 a 13:00)**

# Ni calladas ni sumisas ni invisibles

LAS TRABAJADORAS DE LAS RESIDENCIAS DE BIZKAIA RECIBIERON MÚLTIPLES MUESTRAS DE APOYO DURANTE LA ACAMPADA QUE PROTAGONIZARON DEL 8 AL 10 DE JUNIO EN BILBAO








› ERREDAKZIOA

**Empoderadas, exultantes, orgullosas, agradecidas...** No es posible definir con un sólo adjetivo el estado de ánimo de las trabajadoras huelguistas de las Residencias de Bizkaia tras los tres intensos días de acampada que llevaron a cabo los días 8, 9 y 10 de junio, en Bilbao. A lo largo de esos días

## La Residencia Miravilla, botón de muestra de que el acuerdo es posible



**Hay residencias que se han hartado ya de la actitud anti-negociadora de las patronales del sector** -que hasta el momento ha hecho imposible buscar una salida sectorial y negociada al problema- y están optando por negociar sus propios convenios de empresa, volviendo de esta manera a la normalidad en los centros.

Ese es el caso de la Residencia Miravilla, de Bilbao. Allí, el comité de empresa -compuesto por 5 delegadas de ELA- y la Dirección han llegado a un acuerdo de convenio que recoge las reivindicaciones principales de las trabajadoras del sector.

**35 horas.** El convenio, que tendrá una vigencia de cuatro años, contempla un incremento salarial superior al 14%, que se materializa de la siguiente manera: una paga no consolidable de 350 euros para el 2016; una subida lineal de 50 euros mensuales para el año 2017, una subida lineal de 50 euros mensuales para el año 2018 y una subida lineal de 80 euros mensuales para el año 2019.

Por lo que se refiere a la jornada laboral, se acuerda una reducción progresiva de más de 100 horas, alcanzando en 2019 las 35 horas semanales. Además, se mejora en un 50% los pluses por trabajar en domingos y se logra el reconocimiento del 100% de IT en caso de accidente laboral o enfermedad profesional.

El acuerdo incluye, también, las cláusulas anti-reforma, como la de la inaplicación, y en lo no acordado se aplicará el Convenio sectorial de Bizkaia.

La residencia Miravilla, asociada a ELBE, tiene cerca del 70% de camas financiadas por la Diputación y, a pesar de tener casi una decena de camas vacías y beneficios inferiores a otras residencias, ha sido capaz de llegar a un acuerdo. Esto demuestra que es cuestión de voluntad llegar a lograr acuerdos porque las reivindicaciones planteadas no son inasumibles.















multitud de personas -muchas, conocidas, que quisieron dar su apoyo público a estas trabajadoras- se dieron cita en la explanada del Arriaga. Tres días en los que se sucedieron la música, las charlas, el teatro, el buen humor... Todo en directo y "gratis total". No en vano la solidaridad no tiene precio.

Con esta acampada las trabajadoras de las residencias querían socializar su lucha por unas condiciones laborales dignas y por un servicio público de atención de calidad a las personas dependientes porque, tal como declararon en la presentación de la acampada, "tras un año de lucha somos conscientes de que es el sistema lo que debemos cambiar. Y eso es muy difícil, porque detrás hay decisiones políticas deliberadas para perpetuar condiciones laborales de explotación y un deficiente servicio público para las personas más débiles de la sociedad. Todo ello con un objetivo: salvaguardar los beneficios de unas cuantas empresas cuyos titulares pertenecen al círculo político de los que gobiernan en la Diputación".

**Las reivindicaciones no entienden de vacaciones.** La asamblea de trabajadoras de residencias ha acordado nuevos paros: se iniciaron el 8 de julio y se prolongarán hasta el 31. La huelga supera los 200 días y afecta a más de 5.000 trabajadoras.



## ESKERRIK ASKO BIHOTZ-BIHOTZETIK KANPALDIRA JOAN ZIRENEEI

**Ainara Jiménez**. **Bea Kontukontai** (ipuin kontalaria). **La Otxoa** (abeslaria). **Las kapritxosas**. **Poesia xuxurlatua** (poesia errezitaldia). **Puro Luego** (musika taldea). **Iñaki Oliden** (akordeoilaria). **Atazál** (musikariak). **Irantzu Varela** eta **Josebe Iturrioz** (eragile feminista). **DJ Mangas** (musikaria). **Bernando Atxaga** (idazlea). **Gari** (musikaria). **Ane Guria** (musikaria). **La Basu** (musikaria). **Dibuja Tolrato** (marrazkilariak). **Las Fellini. Toti Martinez de Lezea** (idazlea). **Hector Alterio** (aktorea). **Tasio Erkizia. Bilboko eta Foru Aldundiko suhiltzaileak. Asociaciones de vecinos. Jone Goirizelaia, Jasone Agirre, Maddalen Iriarte, Arantza Urkaregi, Josu Unanue, Asier Vega** eta **Diana Urrea** (EH Bildu). **Neskutz Rodriguez** eta **Josean Elgezabal** (Podemos). **Babestu plataforma**. **Pentsionistak Martxan**. **Dimitrios Padimoulis** (Syriza). **Batukada Sokole**. **Gurutze Beitia** (aktorea). **Las Kelly**. **Julián Iantzi** (aurkezlea). **Ciudadanía, en general.**

**Atxikimendua eman zutenak bideo batekin:**

**Kepa Junkera** (trikitrilari). **Oihana Etxebarrieta** (EH Bildu eta eragile feminista). **Jule Goikoetxea** (EHU). **Hedoi Etxarte**. Berrian iritzi-artikulua idatzi zuen. **Miren Amuriza** (bertsolaria). Berrian iritzi-artikulua idatzi zuen **Itsaso** (mugimendu feminista). **Arkaitz Estiballes** (bertsolaria).

**FRANQUEO CONCERTADO** / FRANKEO ITUNDUA
**NO 08/129** ZKIA

**Causa devolución** Itzultzearen arrazoia

- ☐ **Desconocido. Empresa** Ezezaguna. Enpresa
- ☐ **Desconocido** Ezezaguna
- ☐ **Rehusado** Uko egin zaio
- ☐ **No retirado** Baztertuta

**DISTRITO** BARRUTIA: **FECHA** DATA:
**SECCIÓN** ATALA: